

Mugak, egunez eta gauez

Neurri muriztaile ugari sartu dira indarrean asteon, etxeratzeko agindua tarteko, koronabirusaren hedapena gutxitzeko asmoz / 2

TXINTXARRI

Hasteko irrikaz

Ahobizi edo belarriprest izango dira hainbat herritar Euskaraldian, azaroaren 20tik aurrera / 9

Bezeroen fideltasuna saritzeko beste kanpaina bat martxan jarriko du Aterpea elkarteak / 3

Alarma egoerako neurriek Lasarte-Oriako kirol elkarten jardunean eragin dute / 10-11

2^{mó}
graduatu
erreflexuen aurkako lenteekin

99€

2020/12/31ra arte baliaigarria. Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Positibo eta neurri murriztaile gehiago

Koronabirusaren hedapena gutxitzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak iragarritako neurri murriztaileak indarrean daude asteartetik. Pertsonen mugikortasuna mugatzen dute batez ere. Positibo kopuruak gora egin du egun hauetan EAE osoan, eta Lasarte-Orian ere bai

Txintxarri

Astearte goizetik indarrean daude Eusko Jaurlaritzak SARS-CoV-2 birusaren hedapena gutxitzeko asmoz hartu dituen neurriak. Pertsonen arteko mugikortasunari eragiten die batez ere. Gauetan etxeratze agindua ezarri dute, 23:00etatik 06:00etara. Ere mu publiko zein pribatuko bilerek sei pertsonakoak izan ahal dira gehienez, ez baldin badira etxe berean bizi. Udalerrriak eta EAE erkidegoa itxi egin ditu Lakuak: zenbait egoeratan -lan- ikasketak, osasun- edo zaintza-arrazoiengatik-, dena den, posible izango da herri batetik bestera mugitzea. Hasiara batean bi

astez egongo dira indarrean neurri horiek.

Goiz da oraindik jakiteko asteen iragarritako muga horiek zenbateko eragina izango duten. Bien bitartean, positibo gehiago detektatzen ari dira herriz herri, baita Lasarte-Orian ere. Urriaren 28ko datuak izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak edizioa itxi aurretik. Horien arabera, gure herrian zazpi kutsatze berri atzeman dituzte. Urriaren 21etik 28ra, berriz, 57. Intzidentzia-tasari begiratuta, Lasarte-Oria gune gorrian dago, 100.000 biztanleko 557,77 kasu dauzkalako azken hamalau egunetan -urriaren 29ko datuak-

Beterri-Buruntza eskualdeko beste bost udalerrriak ere gune gorrian daude: Andoain (705,87), Astigarraga (1.165,05), Hernani (1.104,28), Urnieta (2.697,90) eta Usurbil (696,42).

Urriaren 23an hala iragarri arren, Lakuak indargabetu egin ditu gune gorrian zeuden herriek bete beharreko neurri bereziak. Orain, udalerrri guztiek bete beharko dituzte berdinak. Eta, zeintzuk dira? Jarraian zehaztu ditugu batzuk, puntuz puntu:

MUGIKORTASUNA

Udalerritik ateratzea ez da posible izango ez bada lanerako, ikasteko,

beste pertsona batzuk zaintzeko edo osasun-arreta jasotzeko. Gauetan etxeratze agindua ezarri dute 23:00etatik 06:00etara. Herritarrek kalean egon ahalko dute ordu-tarte horretan lanetik itzultzen ari badira, botikak erostera atera badira, norbait zaintzera eta beste zenbait "oso premiazko" jarduerak egiteko.

Mugakide diren udalerrietara joan ahalko da "jarduera sozioekonomikoak" egitera. Adibidez, supermerkatua, jatetxera edo haurtzaindegira joatea, Eusko Jaularitzak zehaztu duenez. Norberaren udalerrian egin daitezkeen jarduerak sozial eta ekonomikoak egin ahalko dira ondokoetan, baldin eta "hurbiltasunagatik eta irisgarritasunagatik" gehiago komeni bada. Mugakide diren kiroldegietara joatea ere baimenduta dago.

OSTALARITZA

Taberna eta jatetxeek 23:00etan itxi beharko dute. Debeakututa dago barran kontsumitzea. Mahaietan ezingo dute sei pertsona baino gehiagok eseri

elkarrekin. Elkarrekin gastronomikoak eta txokoak ezingo dira ireki.

PARKEAK

Eusko Jaurlaritzaren dekretuan jasotzen denez, herritarrek erabili ahalko dituzte haurren parkeak eta aire zabalean dauden beste eremu batzuk, beti ere gehieneko edukiera errespetatzen badute: barrutiaren azaleraren lau metro karratuko, pertsona bat.

KULTURA

Lasarte-Orian antolatzen diren ekitaldietara bertan bizi diren herritarrek joan ahalko dute soilik. Espazio itxietan, edukieraren erdia eta 400 ikusentzule gehienez. Aire zabalean, aforoaren %50a eta 600 ikusentzule asko jota.

GARRAIO PUBLIKOA

Ibilgailuak gehieneko edukiera bete arte okupatu ahalko dira, eserita edo zutik joateko plazak izan. Azken zerbitzuak gauerdian eskainiko dituzte, 00:00etan.

Hilerrira joateko irizpideak

Agintarien gomendioei jarraiki -ahal dela, aholkatu dute azaroaren 1a baino lehenago kanposantuetara joatea-, herritar batzuek ez dute igandera arte itxaron eta euren senide eta lagunak oroitzen joaten dira lllarraltzueta hilerrira egun hauetan. Lore-sortak jarri, hilarriak garbitu eta atondu... lllarraltzueta izan dira baita ere Agustin Valdivia alkatea eta Lasarte-Oriako Udaleko Zerbitzuak batzordeko buru David Mateos, hurrengo egunetan bisitak egitera joateko gomendioak zeintzuk diren gogoratu eta azken hilabeteetan udalak egin dituen berritze-lanak zeintzuk izan diren erakusteko.

Asfaltia SL enpresa arduratu da lurzorua berriro asfaltatzeaz, zintarri batzuk konpontzeaz eta ura kanalizatzeko bideak txukuntzeaz. Horrez gain, hilerrira sartzea errazagoa izateko baranda bat jarriko dute igandea baino lehen, Mateosek zehaztu duenez. Panteoi eta harlauza batzuk "desamiantatu" egin dituztela gehitu du alkateak, material horrekin fabrikatuta baitzeuden. Atari enpresak egin du lan hori.

Alarma egoera indarrean dagoela eta, Valdiviak eta Mateosek azpimarratu dute errespetatu egin behar direla espazio publikoetara joateko protokoloak. "Maskara jantzita eraman beharko dute bisitariek, eta,

taldetan etorri gero, sei pertsonakoak izan beharko dute asko jota, baldin eta etxe berean bizi ez badira". Udalak adierazi du bisitek ordubeteokak izan beharko dutela asko jota, "jende pilaketak saihesteko". Dena dela, ez dute aurreikusten pilaketarik gertatuko denik, hilerrira aire zabalean dagoelako eta espazio handikoa delako. Edukiera maximoa 1.000 pertsonakoa da. "Pandemia garaian egongo ez bagina ere, nekez beteko litzateke lllarraltzueta", adierazi du alkateak.

Lasarteoriatarrei "arduraz" jokatzeko eskatu diete udal ordezkariak. "Neurriak errespetatu gero, ongi joango da dena". Zehaztu dute igandean udaleko langile bat egongo dela hilerrian, bisitariek eduki ditzaketan zantzak argitzeko. Udaltzainek ere patruilatuko dute noizean behin.

Manttangorriren zerbitzu berezia

Mateosek jakinarazi du zerbitzu berezia eskainiko duela Manttangorri hiribusak larunbatean eta igandean. "Erabaki dugu ordutegia moldatzea eta goizez eta arratsaldezkintza, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara".

Manttangorri Antxisutik aterako da orduro eta 30 minutu inguru behar izaten du lllarraltzuetara iristeko.



Udaleko Zerbitzuetako batzordeburu David Mateos eta herriko alkate Agustin Valdivia. TXINTXARRI



Udalak berritze-lanak egin ditu hilerrian azken hilabeteetan. Esate baterako, asfaltatzea. TXINTXARRI



Ostegun eguerdian, Mani's ileapaindegiaaren aurrean egin dute bezeroaren hamabostaldiaren aurkezpen ekitaldia. TXINT

Bezeroen hamabostaldia, komertzioak lagunduz

Azaroaren 2tik 14ra Aterpeako kanpainan parte hartzen duten komertzioetan erosketak egiten dituzten bezeroek erosketa-bonuen zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Sei sari banatuko dituzte; 500 euroko bi eta 250 euroko lau

Txintxarri

Aterpea Merkatarien Elkarreak jarraitzen du bezeroen fidelotasuna saritzen. Azaro hasieran, bezeroek, kanpainan parte hartuko duten establezimenduetan egiten dituzten erosketen truke, erosketa-bonuen zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Hilaren 2tik 14ra bezeroaren hamabostaldia jarriko dute martxan.

Horrela, erosketa bakoitzeko papertxo bat jasoko dute erosleek. Papertxo hori datu pertsonalekin (izena, abizenak eta telefono zenbakia) bete beharko dituzte eta establezimendu bakoitzak bere lokalean jarriko dituen

kutxetan bilduko dituzte. Parte hartzeko egunak pasata, azaroaren 16an eta 17an jasoko ditu Aterpeak parte hartuko duten establezimenduetako kutsak, eta 18an egingo dute zozketa, Mirentxun, asteazkenarekin.

2.000 euro sei saritan

Orotara sei sari banatuko ditu merkatarien elkarreak bezeroen hamabostaldian: 500 euroko bi eta 250 euroko lau. Horiek, 10 euroko bonuetan banatuta jasoko ditu saridun bakoitzak, eta gutxienero erosketa 10 eurokoa izango da. Adibide bat ere jarri dute hori azaltzeko: Bezero batek

28 euroko erosketa bat egiten badu, berak erabakiko du 10 euroko hiru bonu erabili, edo bi erabili eta 8 euro bere poltsikotik gehitu. Inola ere dirurik ez dela itzuliko azpimarratu dute.

Erosketa bonuak urte amaiera baino lehen erabili beharko dituzte sarituek; abenduaren 31 baino lehen.

Herritarrei deia

Aterpeak adierazi du herriko merkataritzan kontsumitzera bultzatu nahi dituztela herritarrek, eta horretarako, bezeroen hamabostaldian parte hartzea animatu dituzte.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

Burbuilak

Orain astebete Hernanin ginatkeen hiru lagun, beste hainbat kiderekin batera, zaintza lanen inguruko gogoeta egiten, Beterri-Buruntza eskualderako Emagin elkarreak egindako diagnostikoa aztertzen eta proposamen berriak mahai ganean jartzen. Hernanin ginatkeen gure herrietan koronabirusaren kutsatze tasek gora egin ez balute, eta bertan behera geldituko ez balitz hitzordua. "Jardunaldiak atzeratu dituzte", idatzi zuen U-k *Kaixomaitia* gure whatsapp taldean, ostiral eguerdian. A-k erabakia zuen ordurako Nafarroko lantokitik itzultzea asteburua elkarrekin pasatzeko.

Ez zen jardunaldirik izan, baina mantendu genuen afaria, eta luzatu zen hizketaldia: hirurok izan ditugu asteotan nork bere pisukideak konfinatuta, kutsatuta edo kutsatze katean egoteagatik. Gurean, erabaki genuen bigarren astean gurasoenera itzultzea, pisukideak bakartzea erosoago pasatu ahal izateko, eta etxe guztia erabili ahal izan zezan; U-k bere etxekideekin erabaki zuen hiruko "burbuila taldea" sortzea emaitzak jaso bitartean; A-k, berriz, hautatu zuen bizikidearekin egitea konfinamendu osoa.

"Joan zaitezke barazkien otarra hartzera?", idatzi zuen I-k, bakartuta zegoenean Bizi-lagunak whatsapp taldean. "Zerbait behar du O-k afaltzeko? Ailegatu naiz etxera", dio J-k. "Topera zaude, eta etorri etxera bazkaltzera", gonbidatu izan nau K-k. "A-ren balkoi azpira azaldu gaitezke kasu egitera", diogu U-k eta biok Nafarroa itxi aurretik. O-k komuna desinfektatu behar duenez, berak garbitu du bi asteotan; I-k eskerrak eman dizkie pisukideei etxeko lanak hiruren artean egin orde, biren artean egiteagatik.

"Zertaz ari gara zaintza erdigunean jartzeaz ari garenean?", "Nola egin zaintza lanen demokratizaziorako?". Horra Hernaniko jardunaldietako hitzaldi eta mahai inguru banaren izenburuak. Egia da: aipatutako inor ez gara guraso, gaur-gaurkoz gutxitan tokatu zaigu odol-familiako nagusiren bat zaintzea, eta prozesua beti ez da erraza; badira talkak, eztabaidak, etxeko lanei eta elkarren zaintzari denbora kopuru diferentea eskaintzeagatik korapiloak. Egingez ikasten da, ordea, eta, gutxienez, zaintza lanen gaineko ikaspen bat ondu dugula ondorioztatu daiteke ostiraleko afariaren ostean.

Zutabea osatzeko ideia igande arratsalde heldu zait. Alarma egoera iragarri berri dute, I-k prestatu du bazkaria eta haienera joan naiz bakarrik nengoelako, U bazkalostean etxeratu da, ostiralerako prestatutako azenario tarta jan dugu, J etxean ari da hautsa pasatzen, K etorri da, O afariar arduratuko da, A goiz joan da biharamunean goizean goiz Nafarroara lanera joan behar delako, baina hitz egin du U-rekin telefonoz... Maiatzera arte luzatuko da salbuespen egoera, eta eskerrak *kaixomaitiak* eta *bizi-lagunak* ditugun inguruan bizirauteko.

solaskide
ELKARREKIN
euskara bizi, erabili

solaskide
Astindu mingaina!

IZEN EMATEA: URRIAREN 30ERA BITARTE

Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943 37 14 48 • 695 785 389

Antolatzaileak: **ttakun**, euskaltzaleen topagunea, **munterri**, UDAL BURGALTEAK, LASARTE-ORIA, Babeslea

GAU BELTZA

Larunbata urriak 31,
GAU BELTZA ospatzeko
gonbitea luzatu nahi dizuegu:
- MOZORROTU
- KALABAZAK HUSTU, KANDELAK PIZTU

Lehiaketa antolatu dugu! Atera argazkia eta bidali:
harpidetza@ttakun.eus 646 82 44 66 (WhatsApp)

(familian gozatzeko produktu sorta eskura dezakezu)

ttakun
txintxarri



Mari Carmen Jauregi Albokako lehendakaria eta Isabel Lopez Zero Sette akordeoi orkestrako ordezkaria, alkatearekin. TXINTXARRI

Kultur eragileak babesten jarraitzeko hitzarmenak

Beste urtebetez, gutxienez, Lasarte-Oriako Zero Sette akordeoi taldearen eta Alboka abesbatzaren jarduna diruz lagunduko du udalak. Asteazken goizean sinatu dituzte bi kultur eragileen eta udalaren arteko hitzarmenak Isabel Lopezek eta Mari Carmen Jauregik

Txintxarri

Zero Sette akordeoi taldearen eta Alboka abesbatzaren jarduna diruz lagunduko du Lasarte-Oriako Udalak. Asteazken goizean sinatu dituzte urtebeterako bi hitzarmenak, udalean. Agustin Valdivia alkateak eta Zero Sette Akordeoi Orkestrako Isabel Lopezek sinatu dute bi entitateen arteko hitzarmena lehenik. Akordeoi taldeak 3.779 euroko aurrekontua du, eta, aurtun, udalak 1.971 euroekin lagunduko du. Horrez gain, udalak instalazio municipalak dohainik utziko dizkio orkestrari bere jarduerak aurrera eramanez ahal izan ditzan.

Horrekin batera, Zero Setteren lokalaren alokairua, musika-tresnak eta soinu-ekipoak mantentzea eta urteko beste hainbat jardueren kostuak ordaintzen ere lagunduko hitzarmenak. Ordainetan, Zero Sette Lasarte-Oriako akordeoi taldeak, Gabonetan kontzertu bat eskaintzeko konpromisoa hartu du. Lasarte-Oriako alkatea bezala Zero Setteko ordezkaria ere pozik agertu dira hitzarmenarekin, "Zero Settek

egiten duen lan garrantzitsuaren erakusgarri" baita.

Albokak ere bere hitzarmena

Mari Carmen Jauregi Albokako lehendakaria ere sinatu du koruaren hitzarmena. Hauek 8.125 euroko aurrekontua dute, eta 3.405 euro jasoko dituzte udaletik. Hitzarmen horretan, bi alderdien betebeharrak eta dirulaguntzaren helburua ezarri dituzte.

Alkateak jakinarazi du hitzarmena "egokitu" egin dela COVID-19ak eragindako egoera dela-eta, eta akordioaren bidez elkarte horri lagundu nahi diotela bizitzen ari garen "une konplexu" honetan. Udalak aitortu du entitate kulturalak, eta kasu honetan, Alboka, kulturaren arloan egiten ari den ahalegina.

Bestalde, Albokako lehendakariak nabarmendu du zaila izaten ari dela koruaren egunerokoa mantentzea, elkartearen jardura normala zailtzen duten protokolo batzuetara egokitu behar izan baitituzte entsegu eta kontzertuak.

Alokairu sozialen babes aldia berritzeko eskaera

"Premiazko bilera" eskatu diote Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Iñaki Arriolari Kaleratzeak Stop, Alokairu eta Inquilinos Azora elkarteek, Donostian. Agerraldian parte hartu dute Lasarte-Oriako Zapategi kaleko zenbait portaletako bizilagunek

Txintxarri

Agerraldia egin dute Alokairu, Kaleratzeak Stop eta Inquilinos Azora elkarteek Donostian, Eusko Jaurlaritzak Andia kalean daukan egoitzaren aurrean, Etxebizitza sailburu Iñaki Arriolari "premiatzko bilera bat" eskatzeko, berriki dezan zein egoeratan dauden Gipuzkoako babes ofizialeko etxebizitzaren zenbait sustapenen egoerak.

Azora putre-funtsaren maizterrak eta Lasarte-Oria, Donostia eta Errenteriako babes ofizialeko zenbait etxebizitzatan bizi diren pertsonak elkartu dira Donostian. Gipuzkoako zenbait babes ofizialeko



Iñaki Arriolari "premiatzko bilera" eskatu diote Donostian. INAXIO ESNAOLA/IRUTXULOKO HITZA

etxebizitzaren babes aldiak datorren urteetan amaituko direla nabarmendu dute deitzaileek. Lasarte-Oriako Zapategi kalekoena, esaterako, 2021eko abuztuan bukatuko da. Tolosan, Irunen eta Zumaiian, berriz, hilabete lehenago. "Kezkaz ikusten dugu gure etorkizuna; babesa amaituz gero, gerta liteke alokairuak prezioz igotzea edo etxebizitza horiek salmentara ateratzea", ohartarazi dute. "Mailegu bat eskuratu edo salmenta ordaindu ezin badute, etxebizitza horietatik atera ditzakete". Deitzaileek esan dute Jaurlaritzaren "betebeharra" dela etxebizitza publikoetan "espekulazioa eta sustatzaile pribatuen negozioa" saihestea.

Eskaerak sailburuari

Agerraldian salatu duten kasuetako bat izan da Lasarte-Oriakoa. Babes ofizialeko etxebizitza horien jabea da Gestion de arrendamientos y alquileres. Deitzaileek deitoratu dutenez, alokairu-kontratuak datorren urteko abuztuan berritu beharra baliatzen ari da, horien prezioa %50 handitzeko.

"Premiazko bilera bat" eskatu diote arestian aipatutako elkarteek Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Iñaki Arriolari. Eskatuko diote EAEn egoera horretan dauden babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenei babesa eta babestutako alokairu-erregimena bermatzea eta etxegabetzeen aurkako prebentzio-protokolo bat garatzea. Era berean, elkarteek ohartarazi dute putre-funtsen eta edukitzaile handien etxegabetzerik ez dutela onartuko; eskatuko dute kontratuak zazpi urtez berritzea, "KPI Kontsumo Prezioen Indizeari lotutako igoerarekin". Etxebizitza sozialen parke publikoa areagotzea galdegingo diote Arriolari, aurrekontua handitzea eta "etxebizitza hutsak mobilizatzeko neurri eraginkorrak" hartzea.

HERRIKO ZAPATEGI KALEKO ZENBAIT PORTALETAKO BIZILAGUNEK PARTE HARTU DUTE



Dantzaren bidezko gogoeta proposatzen du Doos Colectivoren eskaintzak. DOOS COLECTIVO

Sentipenek eragindako mugimendu bidaia

XVI. Dantza Zirkuitoan Doos Colectivok hiru piezez osatutako ikuskizuna ekarriko du larunbatean, urriak 31. Agertokian 'El fin de las cosas' eta 'Gorpuztu' dantzatuko dituen Leire Otamendik edukiari buruzko zenbait nondik norako eman dizkio TXINTXARRI-ri

Maitane Aldanondo

Tarte batez bada ere egunerokotik ihes egiteko aukera izan daiteke kulturak sortutako beste munduei begiratzea. Doos Colectivok horretarako leiho bat zabalduko die larunbat iluntzean Manuel Lekuona kultur etxeko oasira doazenei. 20:00etan hasita, dantza garaikideko eskaintza hirukoitza ekarriko dute: *Gorpuztu* eta *El*

fin de las cosas oholta gainean, zuzeneko musikak lagunduta, eta Vincent-Rene Lortiek zuzendutako *The man who traveled nowhere in time* bideoa, pantailan.

Aretoan egiteko proposamen ezohikoa da Doos Colectivorena, pieza laburrak baitira, 15 bat minutukoak; eta elkarren artean loturarik ez dute, desberdinak

dira. Diziiplina artistiko horri aukera ematera ausartu edo animatu ez direnentzat abagune aproposa izan daitekeela uste du Leire Otamendi (Donostia, 1993) dantzariak. "Momentu honetan antzokiak leku seguruenetakoak dira, eta beste planik ez dago. Aukera paregabea da dantza garaikidea inoiz ikusi ez dutenentzat. Hiru film labur

ikustea bezala da. Orain da une egokia, antzokira joan eta kultura pixka bat kontsumitzeko".

Oreka eta harremanak

Zuzenean eskainiko direnak Eva Guerrero sortzaile bilbotarraren bi obra dira. *Gorpuztu* lanak oreka bilatzeko ahalegina du ardatz. Otamendiren hitzetan, "kristoren bidaia daukat dantza horretan, *geisha* moduan hasten naiz eta bukatzen dut animalia bat izaten". Hainbat erlijio eta filosofiatan gorputzak duen erabilerari buruz egileak burututako ikerketa batean du sorburua.

Dantza egitea zailtzen dion kimono batekin hasiko du bakarkako saioa, eta zumitz saski bat erabiliko du koreografian. "Buruan jarri eta pentsatu behar dut ezin dudala hortik atera, kaiolan sartutako animalia naizela eta horrek zer sentiarazten didan". Alde espiritual eta basatia uztartzen ditu; eta prestatzeko, tai xia, ekialdeko dantzak, mantrak... landu ditu donostiarrak.

El fin de las cosas-ek, berriz, harremanak ditu oinarri. Oraingoan, Aritz Lopez dantzariarekin ariko da oholta gainean, batzuetan elkarrekin, beste batzuetan, bakarka. Bikote harreman bat erakutsi arren, "edozein motatakoa" izan liteke; batak besteari eraginda erlazioak nola eraldatzen doazen irudikatuko baitute, askotariko uneak igaroz.

Bilakaera hori erakusteko, lagungarri zaizkie zenbait elementu eta, bereziki, arropa aldaketak. "Evak lortu nahi zuen atmosfera ematen diote, bisualki desberdina. Ez da eszena berri bat, baina mugimendua bestelako da", argitu du dantzariak.

Pieza baten zein bestearen gako nagusia sentsazioak dira; haiek eraginda mugitzen baitira. Edonola, protagonistak dioenez, landutako inprobisazioa da, ideia garbi batetik abiatzen dena. Alegia, mugimendu mota zehatz batzuekin erantzun behar dute. "Euskarri bat dugu energia aldetik nola egin jakiteko".

Berdina desberdin egin

Koreografiak atontzerakoan Guerrero elkarlanean aritu da Garazi Lopez de Armentia dantzariarekin. Honek amatasun baja hartu du eta Otamendi ari da azken asteetan bere lekuan. Jada martxan zen ikuskizun batean aritzea ez da erraza, are gehiago, "oso pieza pertsonalak" izanda. "Garazik mugimendu asko ateratzen ditu bere inprobisaziotik, oso berezkoak ditu, eta hori irakastea oso zaila da. Oreka aurkitu behar da. Bestearekiko antzekotasuna lortu, gauza bera adierazi behar baituzu, nahiz eta ez duzun inoiz berdin egingo".

Egungo testuinguruan ikuskizun gutxi egiteko aukera izaten ari dira. "Hatzak gurutzatzen" dituzte emanaldi bat lotzen dutenean eta momentua aprobetxatzen ahalegintzen dira. Hala ere, oholta gainean daudenentzat ere ez da egoera samurra. "Oso gogorra egiten ari zaigu jendea musukoarekin ikustea, ez dagoelako espresiorik. Hartu eman hori eten egiten da".

ARETOAN EGITEKO EZOHIKO IKUSKIZUNA DA, 15 BAT MINUTUKO LUZERA DUTEN HIRU DANTZA BAITIRA

Malagako flamenkoa

Semblante Andaluzek urri erdialdean XVIII. Aste Kulturala egin behar zuen, baina, pandemiaren ondorioz, bertan behera utzi zuen. Flamenko gogoz zeudenek hura asetzeko aukera izan zuten ostiralean FARAE García Lorcaren batera antolatutako ikuskizunari esker. Flamenko abierto taldeak Malagako Axaquiak flamenkoan duen eragina erakutsi zuen.



TXINTXARRI

Indianoaren itzulera

Sasibill Elkarte Lirikoak *Los Gavilanes* zarzuela antzeztu zuen larunbatean kultur etxean. VIII. Musika Astearen barruan, martxoan egin behar zuten ikuskizuna; ikus-entzuleek, ordea, zazpi hilabete itxaron behar izan dute Peruban aberastutako Juan indianoaren itzulera jaioterriko bizilagunen egunerokoa hankaz gora nola jartzen duen ikusteko.



TXINTXARRI

PLAZAN BAZAN



Arrotza Harpeetan gaude, Pleistozeno garaian, duela 40.000 urteko eszena bati begira. Erne erreparatzen baduzu, oso gauza bitxiak aurkituko dituzu, hain zuzen, garai hartan aurkitu behar ez zenituzkeenak. Badira gutxienez hamaika. Ikusten al dituzu?

Eman kolore apur bat goiko harpetarrei. Zenbat eta biziago, orduan eta ederrago.

Margotu




ETXEKO LAN GUZTIAK
NIK EGITEN DITUDALA BESTERIK
EZ DUT ESAN...

	A			
	E			G
Z	U			RR
E			G	U
RR			U	
			Z	

Sudokua

Bete itzazu lauki zuriak, GEZURRA hitza osatzen duten hizkiekin. R bikoitza hizki bakar bat balitz bezala hartuko dugu. Beraz, G, E, Z, U, RR eta A dituzu sudoku honetako sei elementuak. Gogoratu sudokuetan elementu bakoitzak behin agertu behar izaten duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Dadoa Zortzi dado hauetatik erdiak ez datoz bat dadoaren irudi zabalduarekin. Identifika itzazu onak eta txarrak. Zalantzak sortzen baldin bazaizkizu, ebaki ezazu irudi zabaldua eta muntatu ezazu.



Mezu irudikatua

Idatzi irudi bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta Amatxi Pantxikak dioena jakingo duzu. Erran zahar bat da.



A	B	C	D	E	F
G	H	I	J	K	L
M	N	O	P	R	S
T	U	V	W	X	Z



DOMINOAN

Hartu arkatza eta osa itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

ISPILUAN

Maripurtzil eta Pelloziri antzezlan baterako jantzi dira ispilu aurrean, baina ispiluak ez die beren isla ondo itzultzen. Aurki itzazu bi irudien arteko 9 aldeak.

Bezzeroaren Hamabostaldia

LASARTE-ORIA 2020

saritan

2.000 €

Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian Azaroaren 2tik 14ra, eta parte har ezazu erosketa-bonoen zozketan



Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

ALBA MODA	MASAJISTA RAKEL	ORMAZABAL LORADENDA
ARKUPE TABERNA	MERCERÍA ARITZA	OSTEOPATÍA NOELIA CALERO
BAZAR ABREU	OIHANA ESTETIKA	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA
BIDEO LAGUNAK	IMAGINE JANTZI DENDA	SORAYA GALLEGU MICROPIGMENTACIÓN
NOGUES MODA	LAVIE GASTROBAR	VIÑA DEL MAR KAFETEGIA
MAYA LENTZERIA	DULCE TENTACIÓN	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA
MERCERÍA OLMÍ	AVENIDA TABERNA	ADMINISTRACION DE FINCAS MILLA
NOAOA BIDAIAK	ZAPATERÍA ITURBE	PUERTAS Y VENTANAS ZURLAN
ÓPTICA LIZARRI	CERVECERÍA ABEND	TXEMA VALLES-PUBLIBROCK
VENTANAS ALCAR	OLA ENMARCACIÓN	ADMINISTRACIONES BARDAJI
BAR LASARTE	ORBELA EKODENDA	PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA
PELUQUERIA MAY	HAUNE INTERIORISMO	CLÍNICA PODOLÓGICA AMAIA OLONDRIS
GIMNASIO SAITO	FERRETERÍA SUKOA	SILVIA LUIS ARBIZU ADMON. DE FINCAS
NATURHOUSE	CARREFOUR EXPRESS	ACADEMIA DE INGLES STRATFORD
ORUE BOTIKA	URRUZOLA MERTZERIA	BIZKER IMPRESION DIGITAL
VITERI MOVILES	PERFUMERIA MAIANE	CENTRO DE MASAJE KIMA
HALCÓN VIAJES	CAFÉ-BAR BUENETXEA	KAIZEN MUEBLE Y DECORACIÓN
PELUQUERÍA BEA	LOTERÍA IZAGUERRI+C	CLINICA DENTAL ALDAZ
INMOBILIARIA RK	BERASATEGI KAFEAK	ELECTRICIDAD ARREGUI
MERCERÍA MAUXA	AITONAK OKINDEGIA	LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL
ÓPTICA IRIGOYEN	PELUQUERÍA MARBELL	NORTH TEAM NUTRIZIOA
MABEL MODA	ARTSIER FOTÓGRAFO	ARAETA SAGARDOTEGIA
CALZADOS LEDER	CRISTALERIA DEL ORIA	MULTIOPTICAS LASARTE
GESTORÍA BETELU	DECO 75 TEXTIL HOGAR	SANTANA INFORMÁTICA
YOGA LASARTE	ADATS ORRAZTEGIA	VENTANAS ISU LEIHOAK
BAR ORIA-TXIKI	DOAL SALUD	ARTESANÍA INÉS FLORES
EGUZKI TABERNA	HIRU ALDETA TABERNA	COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS CLOVER
ZUBIETA MOTOR	PELUQUERÍA MANI'S	



LASARTE-ORIAN BIZI,
LASARTE-ORIAN EROSI

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO



LASARTE-ORIAN EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN
2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra



Angel Nos

"Lasarte-Orian bizi naizen iruindarra naiz. Duela bost urte etorri nintzen bizitzera, eta emaztearekin eta semearekin euskaraz hitz egiten dut gehienetan. Lau urtez aritu naiz euskaltegian, eta aurten, lan-ordutegiek ez didate eskoletara joateko aukerarik ematen. Horri aurre hartzeko, ordea, telebista euskaraz ikusten dut eta irratia ere euskaraz entzuten dut. Euskaraz aritzeko, bizitzeko animatu naiz egitasmoan parte hartzera".

Eli Corbacho



"Duela bi urte ere parte hartu nuen, orduko lankideekin eta aurten ere parte hartuko dut. Euskaraz jakin arren, egunerokoan, erdaraz bizi naiz, ohitura dut erdaraz aritzeko, eta hain zuzen ere horri aurre hartzeko animatu naiz; euskaraz gehiago hitz egin eta erabilera hobetzeko".

Lide Arroyo

"Euskaraz bizi naizen aldetik, nire eguneroko hizkuntza ohituretan aldaketa handirik eragingo ez duen arren, bi arrazoi nagusigatik eman dut izena Euskaraldian. Batetik, erabilera kontzienteago batean aritzeko, hau da euskara norekin eta nola erabiltzen dudan ikusteko, eta, bestalde, euskaraz jakin arren erdaraz hitz egiteko joera dutenengan eragiteko".



Jon Agirre



"2018ko Euskaraldian ez nuen parte hartu, eta, aurten, egitasmoan parte hartzera animatu dut nire burua. Inguruko zenbaitzuekin euskaraz bizi naiz, baina beste batzuekin, berriz, euskaraz jakin arren, erdaraz aritzen naiz. Joera horiek aldatzeko eman dut izena".



David Pena

"Herrien idiosinkrasia eta arima hizkuntzan dago. Duela hiru urte iritsi nintzen Galizatik Euskal Herrira, eta argi neukan euskara ikasi eta euskaraz bizi nahi nuela. Euskaraldian parte hartuko dut oso interesgarria iruditzen zaidalako kolektiboki egiteko".

IZENA EMAN!
www.euskaraldia.eus





Maialen Chourraut kiroldegian eta Michelingo kirol gunean ez da lehiaketarik izango asteburu honetan. JOSE ANGEL HIDALGO RICO

Bi asteko etena kiroletako lehian

Alarma egoera berria eta COVID-19aren aurkako neurri bereziak ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak. Kirolak ere jasan du jarraibide horien eragina eta lehiaketak bertan behera geratu dira. Lasarte-Oriako kirol elkarte batzuek ere euren jarduna moldatu dute

Txintxarri

COVID-19aren hedapenaren aurkako neurri berriek kirolean ere izan dute eragina. Azken astean, kirol batzuetako jarduna murriztetik lehiaketak guztiz etetera arte iritsi da.

Aurreko asteko ostiralean, urriaren 23an, Gipuzkoako hainbat herritan birusak zuen intzidentzia ikusita, futbol, saskibaloia zein boleibol federazioek bi astez euren ligak etenda egongo zirela jakitera eman zuten.

Era berean, urriaren 25ean ospatu behar zen Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna bertan behera geratu zen, gure inguruko hainbat herri alerta gorrian zeuden eta.

Eusko Jaurlaritzak urriaren 26an argitaratutako dekretuak, ordea, gehiago murriztu du kirol taldeen jarduna eta batzuek etetea erabaki dute.

FUTBOLA

Ostadar SKT eta Texas Lasartearra taldeak izan ziren lehenetarikoak COVID-19aren egungo bilakaeraren albo-kalteen eragina jasaten.

Asteetako entrenamenduaren ostean, Texas Lasartearra Futbol taldeko kadeteek aurreko asteburuan hasi behar zuten denboraldia, baina lehenik Gipuzkoako Federazioak eta gerora Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriak medio, liga hasiera gutxienez bi astez atzeratuko da. Goibel egoteko arrazoi honi, gainera, taldearen jardunaren etetea gehitzen zaio. Azken neurriek entrenamenduak ahalbidetzen badute ere, Texas Lasartearrako kideek saiorik egingo ez dutela jakinarazi dute Lasarte-Oriako intzidentzia tasa jaitsi arte. "Berriz ere,

ziurgabetasun momentuak bizi ditugu eta egoera honetan ardura handiz jokatu behar dugula argi dugu. Gure helburu nagusia zuen segurtasuna da", adierazi diete taldeko arduradunek jokalariei.

Ostadar SKTko taldeek, berriz, baldintza berriei moldatuz entrenatzeko asmoa dutela aurreratu digu Joxe Pikabea ataleko arduradunak. "Taldea gehienok entrenamenduekin jarraituko dugu, egoerara moldatuz. Baina entrenatzaile batzuek, bere kabuz, entrenamenduak etetea erabaki dute, guztia ondo argitu arte".

Hala ere, Udala Kirol Zerbitzuak eskaini ahal ditzakeen jarraibideen zain daudela aipatu du.

Lehiaketei dagokionez, ez da partidari egongo bi astez, baina etena gehiago luzatuko denaren

ustea du Ostadar SKTko koordinatzaileak.

SASKIBALOA

Ostadar Saskibaloia atalak ere bi asteburu euren lehiaketak gelditu izango ditu. Endika Marrahi saskibaloia ataleko arduradunak jakitera eman duenez, epe horretan ere ez dute entrenamendurik izango. "Informazio berri asko daukagu eta ondo aztertu nahi dugu erabaki zuzen bat hartzeko", azaldu du.

Estatistikoki, Euskal Saskibaloia Federazioak egindako neurketaren arabera, saskibaloia jokalarien artean kutsatze portzentaje txikia egon dela jakitera eman digu. "Horrekin euskal taldeen lana goraipatu behar dugu, ez delako erraza", adierazi du.

Baina egoeraren garapena ikusi beharko dela ere azpimarratu du. "Kirolak betetzen duen funtzioa ezinbestekoa da, baina argi daukagu egoera zein den ere".

BOLEIBOLA

Ostadar Boleibol taldeko kideak ere denboraldiko lehen partida jokatu ezinik geratu ziren asteburuan.

Irekiera txapelketako lehen bi jardunaldiak ez dira jokatu, baina Asier Acuriolak aurreratu digunez, "egoera aztertuta, hirugarren jardunaldia ere bertan behera geratuko dela dirudi. Lehiaketa hamabost egunen ostean berriro ere martxan jartzen bada miraria izango da. Baina itxaron beharko da, ez dago besterik".

Taldeak entrenamenduekin jarraituko du, baina mugikortasun murrizketek eragina izango dutela uste du. "Donostiako jokalariek ditugu eta ziurrenik ezingo dira saioetara etorri".

Gainera lehiaketarik ez egoteak entrenamenduetan eragina duela ere azpimarratu du: "Lehiakortasun gutxiago dago".

ERRUGBIA

Beltzak Errugbi Taldea alarma egoerako neurrietara aurreratu zen eta asteburuan, "erantzunkizunez jokatuz", eskolako maila guztiak (10, 12 eta 14 urtez azpikoak) bertan behera geratzen zirela jakitera

eman ziren ohar bidez taldeko familia eta jokalariei.

Era berean, senior taldeak lanean jarraituko duela iragarri du, baita gure jokalaria eta familiekin harremanetan egongo dela ere.

"Egokia iruditzen zaigu gure jardura gelditzea agintariek neurri zorrotzagoak hartu aurretik, espero dugu klubaren egoera ulertzea. COVID-19aren aurkako neurri guztiak hartu arren, uste dugu denon osasuna garrantzitsuagoa dela", adierazi dute.

IGERIKETA

Buruntzaldea IKTko igerilariak ez dituzte hein batean neurri berrien eraginak jasango eta euren jarduna mantenduko dute, Borja Apeztegia prestatzaileak jakitera eman digunez.

Igerilekuari dagokionez, taldearen kontingentzia planak eta protokoloak baliozkoa izaten jarraitzen dute kiroldegitik ezarritako lehen neurriekin batera eta errespetatuz jarraituko dituztela adierazi du Apeztegiak.

Lehiaketarik ez dute hasi, ordea. "Eskola mailako umeak urtarrilera arte ez dute ezer, entrenatu bakarrik. Kirolari federatuak egoerak ahalbidetzen duenean eta selekzioen lehiaketetan parte hartuko dute oraingoz". Horrekin lotuta, asteburu honetan jokatu behar zen Euskadiko Selektzioen arteko lehiaketa atzeratu dela jakitera eman du. Horretan, taldeko Nora Imazek parte hartu behar zuen Gipuzkoako selekzioarekin.

Egungo egoeran lehiaketa bat antolatu eta kudeatzea oso konplexua dela onartu du. Gainera, egun, igeriketa taldeen lehenastun taldeak martxan jarri eta mantentzea dela azpimarratu du. "Gure lehenastun egoerara moldatu eta jardura mantentzea da, mugak errespetatuz noski, baina haurrek, gazteek eta gizarteak orohar, kirolak eskaintzen dituen arlo desberdinen behar handian dagoela uste dugu, bereziki eskola-umei dagokionean".

GIMNASIA

LOKEko gimnastek ere aurrera jarraituko dute entrenamenduekin.

Maite Rueda arduradunak jakitera eman duenez, protokoloak

moldatzen ari da jardunarekin jarraitu ahal izateko. "Egunero Federazioko eta Udal Kirol Zerbitzuko informazioa jasotzen dut eta horren arabera, moldatzen ditut gure protokoloak entrenamendu saioak aurrera eramanez ahal izateko. Gero, gurasoei eta entrenatzaileei horren berri eman behar zaie".

LOKE gimnastika ko arduradunak entrenamenduetan burbuila modura lan egiten dutela azaldu digu. "Taldea entrenatzen dugu; sei gimnasta gehienez. Gainera, gimnastak indibidualki egiten dute lan, eta entrenamendu osaoan zehar, gimnastek eta entrenatzaileak musukoa jarrita daramate". Eta horrela lan egiten jarraituko dute egoerak hobera egin arte.

JUDO

LOKEko judokak lan eta lan dabilta entrenamenduetan, baina neurri berriek eragingo diela aipatu du Gorka Aristegi prestatzaileak. "Ikusteko dago zer gertatuko den. Udal instalakuntzetan saioak egiten ditugunez, kirol zerbitzuak zehaztutako neurriak jarraitu behar ditugu eta euren menpe gaude jardunarekin jarraitzeko.

Egoera berriak burumakur ditu judokak. "Buruia altxatzen hasiak ginen eta nolabaiteko normaltasuna genuenean, berriro ere, ziurgabetasuna sortu du guregan eta familiengan", adierazi du Aristegik.

Taldea ez da lehian hasi, baina aurki hitzordu garrantzitsuak izango zituzten. Egoera berriarekin hitzordu horiekin zer gertatuko den ez dute argi. "Azaroan aurreikusia zeuden senior mailako Gipuzkoako txapelketa eta Euskadiko txapelketa eta abenduko Espainiako txapelketa airean geratu dira", aipatu digu judo saileko arduradunak.

Gainera, kirolaz bizi diren prestatzeileen egoera atera du mahaira. "Kirolaz lan egin ahal izateko urteetan ikasketak egin ostean, egoera honek hil gaitzake. Asko jota ikasleen %50a ditugu gehienok eta inork ez gaitu aintakotzat hartzen".

PILOTA

Pilotari dagokionez, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak martxan dauden lehiaketak

bertan behera utzi ditu eta Eusko Jaurlaritzak baimena eman bezain pronto lehiaketak berrekingo direla jakitera eman du.

Neurri honek Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketari eta Enrique Abril Errebote Txapelketari eragingo die neurriak. Intza pilota elkarteko 2. mailako kadetei ez die asko eragingo, Ezker Hormako lehen faseko azken partidak jokatu baitzituzten aurreko asteburuan. 2. mailako seniorrek, berriz, lehen fasea amaitzeko bi jardunaldiren faltan daude. Partida guztiak irabazi dituzte eta eten honek eragin ahalko die.

ATLETISMOA

Ostadar Atletismoa saileko kideek proba libreko lehiaketa izan zuten asteburuan Anoetako miniestadioan, baina urtarrilera arte beste lehiaketarik izango ez delaren susmoa dute taldeko arduradunek. "Bagenekien bezala, ez da eskola mailako lehiaketarik antolatuko 2021. urtera arte eta federatuenak ere, data horretara arte ez direla egingo uste dugu".

Neurri berriek oraindik nola eragingo dien jakiteko egun batzuk beharko dituztela aurrera dute. Hala ere, egoera aldakor honetara moldatzen joango direla adierazi dute.

IPAR MARTXA

Ostadar Ipar Martxako kideek Buruntzaldeko Ibilbideen Egunarekin bat egin behar zuten, urriaren 25ean, igandez. Hileroko irteera zuten aurreikusia Lasarte-Oriatik Aginagara baina, ekimenaren antzera, bertan behera utzi zuten ibilbidea.

Astean bitan asteazken eta osteguneran dituzte entrenamendu saioak eta oraingoz arazorik gabe ari ziren lanean. Tamalez, Ostadar Ipar Martxako arduradun Rosa Ormazabalek neurri berriak aztertu ostean, entrenamendu saioak etengo dituztela jakitera eman digu; ez, ordea, hileroko irteerak edo pilotwalk eta mendi teknikako ikastaroak.

TXIRRINDULARITZA

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek ezin izan dute

errepideko denboraldia amaitu. Aurreko asteburuan, junior, zein kadeteen taldekako erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketa jokatu behar zuten baina bertan behera utzi zituzten, baita asteburu horretako eta honetako bestelako lasterketak ere.

Neurri berriak indarrean, entrenamenduak eten dituzte. Eta egoera aztertzeko bilduko direla jakitera eman digute txirrindularitza eskolako kideek.



LOKEko judokak entrenamendu batean. Artxiboko irudia. TXINTXARRI

UDABERRIKO BERTSO SAIOA

Azaroaren 8an
19.00etan

Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean

Ane Labaka Miren Amuriza Alaia Martin Miren Artetxe



Gai jartzailea: Amaia Agirre

Musikariak: Gari Otamendi eta Araitz Bizkai

Sarrerak: 5,50 euro | 10 sarrerako bonoa 45 euro

Salgai: Manuel Lekuona kultur etxean eta Kutxabank-en



Nahia Zudaire bikain itzuli da lehiaketara

Buruntzaldea IKTko igerilari gaztea 34. IDM Berlin 2020-World Para Swim World Series proban lehiatu da. Bost probetan parte hartu du eta guztietan finalean egoteaz gain, sei domina kolokatu ditu. Bi Espainiako errekor berri ere erdietsi ditu

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire igerilaria 34. IDM Berlin 2020-World Para Swim World Series txapelketan parte hartu du, urriaren 15etik 18ra bitartean.

Alarma egoera ezarri zenetik lehenengo txapelketa izan du gazteak eta ederki moldatu da lau egunetako lehiaketan. Parte hartu duen proba guztietan finalerako sailkatu da eta sei domina eskuratu ditu: urre bat, hiru zilar eta bi brontze. Horrez gain, bi marka pertsonal eta absolutu mailako S8 klaseko Espainiako bi errekor ere ezarri ditu.

Markak hobetzen

Txapelketako lehen egunean, bi probatan lehiatu zen Zudaire, 100 metro tximeleta eta 200 metro libre probetan, eta bietan S8 mailako Espainiako errekor berriak ezarri zituen.

100 m. tximeletako sailkapen proban lortu zuen lehena; 1:22,30 kronoa egin zuen gazteak. Finalean, berriz, ezin izan zuen marka hobetu, baina Nazioarteko Gazte Mailan lehena izan zen.

200 m. libreko final absolutuan, lortu zuen bigarrena. Horrez gain, bi domina ere eskuratu zituen, absolutu mailako brontzezko domina eta



Nahia Zudaire, 100 metro tximeleta probako podiumean. BURUNTZALDEA IKT

Nazioarteko Gazte Mailako zilarrezkoa.

Bigarren jardunaldian, 100 m. libre proban parte hartu zuen Zudairek. Kanporaketan bere markatik gertu ibili zen, 1.12,09. Arratsaldeko finalean ere gertu ibili zen, 1.12,37an kronoa geldituz. baina Nazioarteko Gazte Mailako zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zen.

400 m. librean lehiatu zen lehiaketako hirugarren egunean. Proba garrantzitsua zen Zudairentzat. Sailkapen saioan bere marka onenetik gertu ibili

zen eta arratsaldeko finalean hobetzea lortu zuen, 5.18,17. Horri esker, absolutu mailako brontzezko postua eta Nazioarteko Gazte Mailako zilarrezkoa eskuratu zituen.

Lehiaketari amaiera emateko, 200 m. lau estiloak proba izan zuen Zudairek. Goizeko kanporaketan 3.11,40 marka egin ostean, arratsalderako finalerako sailkatu zen eta finalean kronoa 3.10,51n geratuz. Nazioarteko Gazte mailan zilarra eskuratu zuen bere marka onenetik ehuneko gutxi batzuetara.



Ainara del Olmo herritarra, horiz, Bizkerreko jokalariekin borrokan. CONCHI SANCHEZ FRAIL

Denboraldiari hasiera emateko era bikaina izan du Añorgak

1. Maila Nazionaleko bigarren jardunaldian eman dio hasiera Ligari; Bizkerre FT 1-2 garaitu du

Txintxarri

1. nazional mailako denboraldia urriaren 17an hasi bazen ere, urriaren 25era arte Añorga KKEk ezin izan dio ligari hasiera eman. Arratia NFT izan behar zuen arerio lehen jardunaldiko partidari, baina COVID-19a dela eta, atzeratu egin zen. Beraz, Getxon izan zuen lehen hitzordua Añorgako taldeak Bizkerre Futbol taldearen aurka. Javi Solchaga herritarrak zuzentzen duen taldeak ez zuen huts egin eta 1-2 irabazi zuen partida.

Hamaikakoan bi herritar izan ziren, Izaskun San Anizeto aurrelaria eta Ainara Del Olmo erdilaria.

2019-2020 denboraldian, bi taldeak sailkapeneko lehen postuetan izan ziren eta partida gogorra izango zela aurreikusten zen.

Añorgak ederki egin zion aurre Bizkaiko taldeari eta zortzigarren

minutuan lortu zuen lehen gola. Nora Sarriegik area aurrean baloia lapurtu eta sarera bidali zuen.

Nora Sarriegik berak egindako presio batean sortu zen bigarren gola, hemezortzigarren minutuan. Presioarengatik Bizkerreko jokalariek baloia galdu eta Sarriegik Malen Urangari pasea eman zion area barrura. Hark ezkerrez bikain eman zion amaiera jokoari. Eta 0-2ko emaitzarekin iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, bi taldeak saiatu ziren erasoak gauzatu eta balia sarera sartzen, baina Bizkerrek 80. minutuan tarte murriztea lortu zuen buruz sartutako golarekin.

Azken minutuetan Añorgak sufritu behar izan zuen emaitza mantentzeko, baina epaileak amaiera adierazi eta hiru puntuak eskuratu zituen.

Zarautz Errugbi taldeak lehen garaipena Ligan

Ohorezko B mailako denboraldia hasi da eta Zarauzko taldeak Uribealde garaitu du

Txintxarri

Zarautz Rugby taldeak Ohorezko B mailako denboraldiari hasiera eman dio Uribealdearen aurka. Zarauzko taldeak garaipena erdietsi zuen, 17-23. Zarautzarrek ongi eta bizi jokatu zuten eta

gogor aritu ziren defentsan. Horrek lehen puntuak eskuratzea ahalbidetu zien.

Jokin Beloki herritarrak 18 urterekin debuta egin zuen maila honetako norgehiagoka batean. Beñat Arroyo herritarra ere

Zarauzko taldeko deialdiaren parte izan zen, baina ez zen zelaira atera.

Bestalde, Jon Ander Puertas herritarrak Madrilgo Pozuelo Rugby Union taldearekin bere bigarren denboraldiari hasiera eman zion. Pozuelo Ohorezko B mailako C taldean dago lehian eta Espainia erdialdeko eta hegoaldeko taldeen aurka jokatzen da. Lehen jardunaldian Malaga Rugby Club izan zuen aurrez aurre eta 27 tantona berdindu zuten norgehiagoka.




Zarautz Rugby taldea, mele batean lehian. Artxiboko irudia. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK



Noa
Zorionak Noa! 4 urte egin dituzu, zein handia egiten ari zaren! Egunderrak izan gurasoen, zure ahizpa Albaren eta familia guztiaren partetik.



Ruben
Zorionak aita!!!! Iriak eta amak asko maite zaitugu!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudiaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.




HILDAKOAK


Iciar Anton Iriarte. Urriaren 26an.
Angelita Yurrita Intxauspe. Urriaren 24an.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 30




Larunbata, 31




Igandea, 1




Astelehena, 2




Astearte, 3



Asteazkena, 4



Osteguna, 16



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 30 DE ORUE
LARUNBATA, 31 ACHA-ORBEA
IGANDEA, 1 ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 2 DE MIGUEL
ASTEARTEA, 3 GIL
AZTEAZKENA, 4 ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 5 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

2	5			9	8		3
8	9				4		
1	7					2	
		8					5
		5	6	7			
9	2	3	1	5			8
			9	4			
5		9					7
			8		1	3	9

OHARRA

Errigora

Errigorako saskien kanpaina martxan da eskaerak eta ordainketak online egin daitezke, errigora.eus webgunean:

- Sasaki beltza (50 euro): oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, kardua, potxak, tomate frijitua, mahats-zukua, botila ardoa, pikillo marmelada, teilak, mertxika almibarretan, piper-mamia. Sasaki beltza eta Korrikaren katilua eskatuta, 12,50 euroko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari (saskiaren balioaren %25) eta 5 eurokoa AEKri.

- Sasaki berdea, ekologikoa (60 euro): oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, txitxirioak, barazkimenestra, pasta, arroza, botila ardoa, ardo-ozpina, udare-zukua.

Sasaki berdea eta Seaskaren egutegia eskatuta, 15 euroko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari eta 5 eurokoa Seaskari.

- Sasaki zuria (50 euro): oliba-olio birjina estra, orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, krietza, ardo zuri apartua, patxarana, txokolatzeko zigarretak, patxaran-pastak eta arbendolpolboroiak. Sasaki zuria eta ereduaren haziak eskatuta, 17,50 euroko ekarpena egingo zaio zonaldeko euskalgintzari eta 5 eurokoa Sortzeni.

Nafarroako ekoizleak: Ablitasgo kooperatiba, El Alcaravan (Arguedas), Almanaque (Andosilla), El Agricultor (Lerin), Aristu (Irunberri), Azanza (Abartzuza), Azpea (Irunberri), Biosasun (Dicastillo), La casa del aceite (Cascante), Bardea (San Isidro del Pinar), La Churta (Allo), Ebron (San Adrian), Enara (Arroitz), El Escolar (San Adrian), Gobeiaberrri (Lodosa), Iturri (Arroitz), Larrinaga (Urantzia), Lezaun (Lakar), Maria Jesus (Ablitas), Martinelli (Berriain), Mendiko (Oibar), El Molinero (Arroitz), Monasterio de Cascante, Pedro Luis (Lodosa eta Urrutia (Uxue).



AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauean edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 278 198

Lan bila nabil geriatria arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

IKASTAROAK

ESKARIA

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313/ bentley.ma@gmail.com

Txokoaldan, tren geltoki zaharrean, txalaparta klaseak ematen ditut. tagoredoremi@gmail.com edo 678 071 041 (WhatsApp ez)

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN

Etxea behar da lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zerbakia, 661 39 62 99.

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu +

paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

GUTUNA

“Misio Taldea” eta Miren Bardaji Maizaren eskertza

IMANOL BARDAJI

Joan den irailean, Lesvos uharterako (Grezia) Moria errefuxiatuen zelaian izandako suteak krisi humanitarioa eta lehentasunezko beharrak ekarri zituen 18.000 errefuxiatu konfinatuentzat. Hori dela eta, Lasarte-Oriako Misio Taldeak premiazko laguntza solidarioko ekimen bat jarri zuen abian, funtsak bildu eta Miren B.M. lasarteoriatarrek sustatutako proiektuaren bidez (Kairos Supporteam) bidaltzeko, joan den urteko uztailetik dago uhartean.

Lasarte-Oriak erantzun bikaina eman zion ekimenari, eta, ohar honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu “afari solidarioan” parte hartu zuten guztiei. Afari bat antolatu nahi izan zen, baina azkenean ezin izan zen egin, baina sostengu ekonomikoa mantendu zen. Bildutako diruak premiazko higiene-produktuak, baliabide medikoak, elikagaiak eta abar erosteko balio izan zuen.

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO:

646 82 44 66

edo PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS

- Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artebe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatazaileak

Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose
Lanchas, Iñigo Garcia eta Igone
Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Dantza. Dantza garaikideaz gozatzeko aukera izango da Doos Colectivoren eskutik. Dantza taldeak Eva Guerreroren *Gorpuztu* eta El fin de las cosas koreografiak eskainiko ditu. Lehena erlijio jakin batzuen une zehatz batzuetan egiten den gorputzaren erabileraren gaineko ikerkuntzatik dator. Bigarrenak, berriz, aztertzen du nola erlazioatzen garen, hartzen ditugun erabakiak eta ondoko pertsonari nola eragiten dioten.

Larunbata 31, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea.

OSTIRALA 30

DONOSTIA Zinema Jaialdia

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 31. Asteari hasiera emango zaio. Azaroaren 6ra arte Victoria Eugenia antzokian, Antzoki zaharrean eta Tabakaleran beldurrezko filmak eta film-laburrez gozatzeko aukera izango da. Sarrerak internetez saldu dira.

Victoria Eugenia antzokia, 20:00etan.

DONOSTIA Erakusketa

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen barruan, *Sarima: Mundu*

magiko bat erakusketaz gozatu ahalko da. Erakusketa azaroaren 14ra arte egongo da ikusgai.

Udal Liburutegi Nagusia.

DONOSTIA Erakusketa

Tolosako Topic Museoak Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asterako ad hoc diseinatutako *Alegiazko izakiak* erakusketa ikusgai dago. Azaroaren 9an itxiko ditu ateak.

Okendo Kultur etxea, goizez 10:00etatik 14:00etara; arratsaldez, asteen zehar, 16:00etatik 20:30era eta larunbatetan, 16:30etik 20:00etara; igandeetan itxita.

LARUNBATA 31

LASARTE-ORIA Dantza

Doos Colectivok *Gorpuztu* eta *El Fin de las Cosas* lanak eskainiko ditu. Tartean Vincent-René Lortiek zuzendutako eta Kyra Jean Green koreografia duen *The man who traveled nowhere* bideo dantza eskainiko da. Sarrerak 5,50 euroren truke erosi daitezke.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

USURBIL Ekitaldia

Urriaren 31n, nazio mailako ekitaldi politiko eta kultural bat eskainiko du Gure Esku ekimenak. Bi erataria ikusi ahalko da: *hamaikagara.eus* webgunearen bidez eta Euskal Herri osoko herri askotan antolatuko diren zuzeneko proiektioetan. Usurbilgo Gure Esku-k ere zuzeneko proiektioa antolatuko du, herrikideek elkarrekin saioaz gozatzeko aukera izan dezaten. Horrez gain, "Altxal!" ikuskizunaz gozatu ahal izango da zuzeneko proiektio horretan. Ikuskizun honetan hainbat kultur gilek hartuko dute parte.

Potxoenea, 18:00etan.

ASTEAZKENA 4

LASARTE-ORIA Ipuin saioa

Kontukantoi ipuinak eman marrazkiak tartekatuz *Ipuinaren ordua* saioa eskainiko du. Genero berdintasuna lantzea eta estereotipoak zalantzan jartzea dira taldearen helburuetako batzuk. Edukiera 7 eta 9 urte bitarteko hamabi umeentzako izango da, eta gonbidapenak beharrezkoak dira. Kultur etxean jaso daitezke.

Kultur etxea, 18:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Akelarre

Ostirala: 21:00.
Igandea: 19:30.

HERNANI

BITERI

Padre no hay mas que uno 2
Larunbata: 19:30.

Igandea: 19:30.
Astelehena: 16:30.

Larunbata: 16:30.
Igandea: 16:30.

Mi semana extraordinaria con Tess



LABURPENA

Akelarre

Zuzendaria: Pablo Agüero. **Gidoilariak:** Pablo Agüero, Katell Guillou. **Musika:** Maite Arrotajauregi, Aranzazu Calleja. **Argazkia:** Javier Agirre Erauso. **Antzeleak:** Amaia Aberasturi, Àlex Brendemühl, Daniel Fanego, Daniel Chamorro, Iñigo de la Iglesia, Yune Nogueiras, Asier Oruesagasti, Elena Uriz, Garazi Urkola, Jone Laspiur, Irati Saez de Urabain, Lorea Ibarra. **Herr.:** Espainia (2020). **Iraupena:** 90 minutu.

Eskualdea purifikatzea aitzaki

Gau beltza ospatzeko, Pablo Agüeroren *Akelarre* filma ikusteko aukera bikoitza izango da Lasarte-Orian; ostiralean, Okendo Zinema Taldeko kideen zine forumean eta igandean, helduen zinema atalean. Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurri berriak kontuan izanik, Okendo Zinema taldeko kideek jakinarazten dute, ostiraleko hitzordua ordu betez aurreratzen dela, hau da, filmaren proiektioa 21:00etan hasiko da.

Akelarre filmaren proiektuak 2017ko Europa-Latinoamerika VI.

Koprodukzio Foroaren ArteKino International Prize saria lortu zuen. Donostiako Zinemaldian estreinekoz eskaini zen eta Sail ofizialean lehiatu zen.

Agüeroren filmak 1600 urteko Euskal Herrira daramatza ikusleak. Eskualdeko gizonak itsasora joan dira. Ana basoko festa batean dago, herrixkako beste neska batzuekin. Rostegui epaileak, erregeak aginduta, eskualdea purifikatu behar du, eta neskek abilotu eta sorginkeria leporatzen die.



SASKI BELTZA

betikoa

+ Korrikaren katilua



50+5= 55€



SASKI BERDEA

ekologikoa

+ Seaskaren egutegia



60+5= 65€



SASKI ZURIA

berezia

+ D ereduaren haziak



70+5= 75€

egiten duguna gara


Saskien balioaren %25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratuko da.

5€ gehigarriak AEK-ri, Seaskari eta Sortzeni bideratuko zaizkie, Korrika, Herri Urrats, eta Sortzenen jaia ez egiteak eragin dien diru-galera arintzen laguntzeko.

Nafar hegoaldeko uzta

euskarari puzka

URRIAK 24 - AZAROAK 12



errigorra.eus



LASARTE-ORIA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

GREMIOEN GIDA 2020



Herriko GIDA KOMERTZIALA sarean ikus dezakezu
www.txintxarri.eus/gida



Barne-Diseinua



Iturgintza



Igeltseritza




- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

DEL ORIA
KRISTALDEGIA

- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuak
- Merkataritza instalazioak
- Dutxa itxidurak
- Kristalgintza orokorra



Uistin Kalea 11 (Zubieta Plaza) Lasarte-Oria
Tlf.: 943 36 23 52 607234522
www.cristaleriadeloria.com

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com



ISU
28. urteurrena

*Mota guztietako leiho, pertsiana,
manpara, toldo eta dekorazioko
profesionalak zure zerbitzura*

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA,
ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil



Elektrizitatea



Kristaldegi eta leihoak

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943 361 471
www.sugatecocinas.com

ILLARRETA
ITURGINTZA
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

ANTONIO ARREGUI, S.L. **AA** eraikuntza materialak

IGAMMA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNNEKO KONPLEMENTUAK

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA ERAKUSKETA
Oria Etorbidea, 6 Goikale, 2
20160 Lasarte-Oria 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 64 73 Tel.: 943 36 59 47
aarregui@gmail.com Faxa: 943 36 59 47

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus